

"Orain Presoak" dinamikak larunbaterako egindako deialdietan egongo gara hainbat sindikatu

LAB, ELA, UGT, STEILAS, ESK, Etxaide, Hiru eta EHNE sindikatuok , "Orain Presoak" giza ekimenaren harira larunbaterako antolatutako ekitaldia eta manifestazioarekin bat egin dugu.

Hauxe da sindikatuok sinatutako adierazpena:

Hemen gauden zortzi sindikatuok Foro Sozial iraunkorraren ekimenez elkartu gara eta preso dauden pertsonak txertatzeko auziari buruzko amankomuneko irakurketa egin nahi dugu.

Lehenago ETArekin behin betiko eta erabateko armagabetzeari gure sostengua adierazteko elkartu ginen eta geroztik beste hiru aldiz modu ezberdinetan elkartu gara, gaixorik dauden presoaren arazoa eta hurbiltzea zirela eta.

Beraz, ELA, LAB, UGT, Steilas, ESK, EHNE, Hiru eta Etxalde sindikatuok euskal gizarteari, bere erakundeei eta eragile politiko eta sozial ezberdinei honakoa adierazi nahi diegu:

1. Egungo egoeran, preso dauden pertsonen arazoa konpontzea bizikidetzat demokratikoa eta adiskidetzat sustatzeko beharrezko ekarpena litzatekela uste dugu.
2. Beraz, arazo honen konponbide orokorra lortzeko asmoz, honako urratsak beharrezkoak lirateke.
 - Gaitz larriak pairatzen dituzten presoaren arazoa dela eta, iazko uztailaren 5ean egindako eskaerari berretsi egiten diogu: "Sindikatuok agintariei estatuan indarrean dagoen legedia eta nazioarteko irizpide zorrotzenak aintzat har ditzaten eskatzen diegu, gaitz larriak edota sendaezinak pairatzen dituzten presoak hirugarren graduan sailkatzeko edo espetxetik ateratzeko, duintasun pertsonal eta gizatasun arrazoiak direla eta".
 - Espainia eta Frantziako gobernuei preso guztiak EAE(Euskal Autonomia Erkidegoa) eta Nafarroako espetxeetara ekar ditzaten exijitzen diegu, espetxe zigorra presoaren sorlekutik urruti ez betetzeko eta senideekiko lotura errazteko.
 - Preso bakoitzaren baldintza eta egoera zehatzak benetan aztertuz, lehen gradutik bigarren gradurako bilakaera eskatzen dugu, espetxe legediak zehazten duen moduan.

3. Hemen elkartu garen sindikatuok urriaren 20an Donostiako Miramar jauregian arratsaldeko 16:00etan bizikidetzaren alde antolatuko den ekitaldian eta arratsaldeko 17:00etan burutuko den manifestazioan (biak "Orain Presoak" giza ekimenak antolaturik) egongo garela jakinarazten dugu.

4. Gizarteari, eta bereziki langileei, bakoitzak bere eremutik, auzi honen behin betiko konponbidea lortzeko lana egin dezan deia luzatzen diegu.